

I - ARABAKO BATZAR NAGUSIAK ETA ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN FORU ADMINISTRAZIOA

Arabako Foru Aldundia

INGURUMEN ETA HIRIGINTZA SAILA

300/2021 Foru Agindua, Ingurumen eta Hirigintzako diputatuarena, urriaren 29koa, Laseman (Araba) hondakin uren ponpaketa estazioa eraikitzeko proiektuaren gaineko ingurumen eraginaren txostena egiten duena

“Lasernan (Araba) hondakin uren ponpaketa estazioa eraikitzeko proiektuari” ingurumen eraginaren ebaluazio sinplifikatuko prozedura egin behar zaio, ingurumen ebaluazioari buruzko 21/2013 Legearen bidez araututakoa, proiektu hori honako kasu hauetan sartzen baita:

– Euskal Herriko Ingurugiroa Babesteko 3/98 Lege Orokorraren I C Eranskina – Ingurumen eraginaren ebaluazio sinplifikatuko prozedura bete behar duten jardueren edo lanen zerrenda (2.7. azpitaldea, “Lehen mailako sareko hondakin urak garraiatzeko instalazioak”).

Arabako Foru Aldundiko Ingurumen Jasangarritasunaren Zerbitzuak, proiektuaren sustatzailerak agiriak jaso ondoren, kontsultak egiteko aldiari hasiera eman zion eragindako administrazio publiko eta pertsona interesdunen artean, 21/2013 Legearen 46.1. artikuluan ezarritakoari jarraiki.

Foru Agindu honetan ingurumen eraginaren txostenean ezarritako balorazioa, zehaztapenak eta baldintzatzailerak agertzen dira. Txosten hori, zehazki, Ingurumen Jasangarritasunaren Zerbitzuek egin zuen, 2021eko urriaren 21ean, Ingurumen eta Hirigintza Zuzendaritzak eskatuta. Foru Arauak eta ALHAOn agertzen den haren argitalpenak 21/2013 Legearen 47. artikulua hiru artikuluen epigrafean jasotako xedapenak betetzen dituzte.

1. Proiektuaren ezaugarrien laburpena: Ebaluatutako eremu geografikoa, aztertutako aukerak

1.1. Proiektuaren ezaugarrien laburpena.

1.1.1. Abiapuntua.

Lasernako hondakin uren saneamendu sarea bateratua da. Herrigunearen ekialdean dagoen hiru konpartimentuko hobi septiko batera gidatzen ditu isuriak. Era berean, Lasernako herrigunearen hegoaldean (600 metro inguruko distantzian) dagoen Contino upeltegian sortzen diren isuriak ere hobi horretara eramaten dira, ponpaketa bidez. Hobi septiko hori zahartuta dago denboraren poderioz, eta ez du gaitasunik isuriak behar bezala tratatzeko eta Ebroko Konfederazio Hidrografikoaren egungo baldintzak betetzeko. Bestalde, Casablanca industrialdeak hondakin uren araztegi bat du, egunean 1.296 m³ tratatzeko ahalmena duena. Gaur egun, bere aukeren ehuneko 50 baino gutxiagora ari da lanean.


1.1.2. Proiektatutako irtenbidea.

Guardia udalerrian, Lasernan, hondakin uren ponpaketa estazio bat (HUPE) eta horri lotutako hainbat azpiegitura eraikitzea aurreikusten da, hala nola zerbitzu eroanbideak, kutxatilak eta HUPE horretara sartzeko azpiegiturak, Lasernatik eta Contino upeltegitik datozen hondakin urak Casablanca industrialdeko hondakin urak saneatzeko sareraino bultzatzeko, bertan dagoen Hondakin Uren Araztegiaren tratatuak izan daitezten.

1.1.3. Proiektatutako jardueren deskribapena.

Lasernako hobi septikoaren gaur egungo lekuan HUPE bat egiteko aukera proiektatu da, horretarako hobia eraitsita. Hala, 82 m² inguru okupatuko lirarteke, Guardia udalerriko 29. industrialdeko 128. lurzatian.

Estazioa hormigoi armatuz eraikiko da, eta beharrezko gailuak edukiko ditu Lasernako hegoaldeko saneamendu saretik eta Contino upeltegiko saretik datozen urak bultzatzeko. Hurrengo irudietan ikus daitekeenez, proiektuak HUPEaren ingurunean leheneratze eremu bat aurreikusten du. Horrek haren paisaia integrazioa erraztuko du, paisaiaren gaineko inpaktuak nabarmen murriztu ahala.



HUPEaren oinplanoaren eta altxaeren krokisa; kolore berdez, proiektuan proposatutako leheneratze eremua.

Hondakin urei bultzada emateko, 150 mm-ko barne diametroko burdinurtu nodularreko hoditeria erabiliko da. Hodi horiek nekazaritzako bideen eta Lasernako hiriguneko kaleen azpitik igaroko dira, Casablanca industrialdeko La Paz kalearen azpian dagoen saneamendu sarearekin lotu arte.

Gainera, jarduera horiez gain, proiektuak barne hartzen du zenbait ur hartune eta elektrizitate hartune egitea, HUPEari berari zerbitzua emateko.

1.2. Ebaluatu beharreko eremu geografikoa.

Proiektuaren jarduketa eremua Guardia udal mugartearen hegoaldean dago, Arabako Errioxako Eskualdean, A-124 errepidearen eta Ebro ibaiaren meandroaren artean dagoen lursail batean, eta Lasernako udalerriko hobi septikoaren egungo kokalekuari eragiten dio. Koordinatuak: X: 540.317/Y: 4.705.731 - UTM 30N (ETRS89). Lasernako landabideetatik eta kaleetatik zehar doa Casablanca industrialdeko saneamendu sarera konektatu arte. Konexio puntuaren koordinatuak: X: 541.959/Y: 4.704.643 - UTM 30N (ETRS89).

Laserna Guardia udalerrian dago; udalerrri hori Arabako probintziaren hegoaldean dago, Guardia-Arabako Errioxa Kuadrillan, Ebro ibaiaren ertzean. Laserna 422 metro inguruko altitudetan dago. Gunearen ezaugarri nagusia bertan dagoen mikro-erliebe konplexu bat da, muienez, mendixkaz eta mahaiz osatua. Inguru horretako landaredi natural potentziala agertzen da bertan. Errekek sarritan sakan sakonak sortu dituzte, garai batean, ziurrenik, emari handiagoarekin isurtzen zen uraren eraginez induskatuak. Mendilerrotik etorritako materialek bilakaera izan dute, eta ekoizpen ahalmen handiko lurzoru optimoak sortu dira, ezaugarri klimatiko eta hidrikoekin batera, mahatsondoaren monolaborantzaren presentzia erraztu dutenak. Halaber, olibadi batzuk ere badaude.

HUPEa bide artean dago, Lasernatik gertu (herritik 250 metrora), eremu lau batean. Gaur egungo hobi septikoaren hiru konpartimentuak dauden gunea da. Bertan, Lasernako herriguneko saneamendu saretik eta Contino upeltegitik datozen ur beltzak biltzen dira. Zuhaitza eta/edo zuhaitz landaredi naturala urria da; jarduketa eremuan almendrondo bat (*Prunus dulcis*) eta bi arte txiki (*Quercus ilex*) baino ez dira aurkitu. Bultza egiteko sarea landabideen azpian lurperatuko da nagusiki. Hala ere, Lasernako herrigunea zeharkatzen duen zati txiki batean, zolatutako kaleen azpitik joango da. Egin beharreko jarduketak, gutxienez, ES2110008 Ebro

ibaia Kontserbazio Bereziko Eremuaren (KBE) Babes Eremu Periferikoaren (KBE) barrualdetik igarotzen dira. Eremu horrek bere Kontserbazio Gidalerroak eta Neurriak ditu, bai eta Espezie Mehatxatuen Euskal Katalogoan sartuta dauden zenbait fauna espezierentzako Interes Bereziko Eremuak ere. Eremu horiek beren kudeaketa planak dituzte Arabako Lurralde Historikoan.



HUPEaren kokapena, proiektuaren arabera



Lasernako HUPetik Casablanca industrialdeko saneamendu sarerako eroanbidearen kokapena



1.3. Aztertutako aukerak.

Hauek dira Ingurumen Dokumentuan aztertutako aukerak:

- 0. aukera: Proiektua ez egitea.
- 1. aukera: Egungo kokapenean araztegi berri bat egitea.
- 2. aukera: Casablancako industrialdeko hondakin uren araztegiara isuriak eroateko eta hondakin urak ponpatzeko baliabideak jartzea.

Ingurumen Dokumentuan azaltzen den bezala, 2. aukera da ingurumen aldetik aukerarik onena, Ebro ibaira isurtzeko puntu bat kentzen delako, Casablanca industrialdean instalatutako egungo HUPEaren errendimendua optimizatzen delako (bere lan ahalmenaren ehuneko 50 baino txikiagoa baita), eta, jakina, Lasernako eta Contino upeltegiko isurketa baldintzak hobetzen direlako.

Ingurumen ondorioetarako, aukeren azterketaren balorazio positiboa egin da.

2. Kontsulta fasearen laburpena

Jarraian, kontsultatu zaien erakunde, entitate eta elkarten zerrenda jarri da, eta haietatik zeinek erantzun duen adierazi da:

URA – Uraren Agentzia	X
Eusko Jaurlaritzaren Kultura Ondarearen Zuzendaritza	X
Eusko Jaurlaritzaren Natura Ondare eta Klima Aldaketa Zuzendaritza	
Eusko Jaurlaritzaren Ingurumen Administrazioaren Zuzendaritza	
Arabako Natur Institutua	
Ekologistak Martxan Araba	
GADEN - Natura Babesteko eta Ikertzeko Arabako Taldea	
Eguzki talde ekologista	
Hontza	
GAIA elkarte	
Arabako Mendi Federazioa (Ingurumen Atala)	
UAGA - Arabako Nekazari eta Abeltzainen Elkarte	
IHOBE - Ingurumen Jarduketarako Sozietate Publikoa	X
Arabako Kontzejuen Elkarte	
Aranzadi Natura Zientzien Elkarte	
SEO BirdLife	
Guardiako Udaleko alkate-udalburua	
Guardia-Arabako Errioxako Kuadrilla	
Arabako Foru Aldundiko Mendi Zerbitzua	
Arabako Foru Aldundiko Museo eta Arkeologia Zerbitzua	X

Arabako Foru Aldundiko Ingurumen Kalitatearen Zerbitzua	
Arabako Foru Aldundiko Historia eta Arkitektura Ondarearen Zerbitzua	X
Arabako Foru Aldundiko Nekazaritza Zuzendaritza	X
Arabako Foru Aldundiko Lurralde Antolamendu eta Hirigintza Zerbitzua	
Arabako Foru Aldundiko Natura Ondarearen Zerbitzua	X

Hona hemen jasotako erantzunetan azaldutakoaren laburpen txiki bat (jasotako dokumentuen kopia osoak erantsi dira):

– URA - Uraren Euskal Agentziak jakinarazpen txostena bidali du. Bertan azaldutakoari jarraiki, Ebroko Konfederazio Hidrografikoari (CHE) eskaera helarazi dio, komenigarritzat jotzen badu gaiaren gaineko txostena egin dezan, Ingurumen Ebaluazioari buruzko abenduaren 9ko 21/2013 Legeari dagokionez. Ondoren, URA-Uraren Euskal Agentziako Plangintza eta Obra Zuzendaritzak egindako txosten bat igorri du, eta, bertan, oso positibotzat jo ditu bai jarduera bera, bai ingurune hidrikoan eraginik ez izateko proposatutako neurriak. Txostenean gogorarazten du jabari publiko hidraulikoan egiten diren obretan nahiz horien polizia eremuan (100 metro) administrazio hidrauliko eskudunaren (Ebroko Konfederazio Hidrografikoa) alde aurreko baimena beharko dela. Sare hidrografikoa babesteko prebentzio neurri gisa, honako hauek proposatzen dira: obra eremuak mugatzea, eta horretarako prestatutako eremuetatik kanpo olioak eta erregaiak manipulatzeko debekatzea. Gune horiek (garbiguneak) segurtasun kubeta iragazgaitz baten barruan egon behar dute, eta, horrez gain, isurgarria izan daitekeen bolumena biltzeko gaitasuna eduki behar dute. Obraren material xurgatzailea eduki beharko da, ustekabeko jario edo ihesetan berehala aplikatu ahal izateko. Arrastearen ziozko eraginak saihesteko, honako hau proposatzen da:

- Lan eremuetan jariatze urak murrizteko, perimetroa drainatzea (obra eremuen isolamendua).
- Lan eremuetako jariatze urak (obrako urak) hartzea.

– Jalkinak kontrolatzeko eta obrako urak isurtzeko sistema, kanpoko drainatze sarearekiko edo ibilguekiko konexio puntuen aurretik:

- Seinaleztatutako dekantazio/sedimentazioko aldi baterako putzua.
- Sedimentuak atxikitze hesia.

– Obrak ibilguaren inguruan egin behar badira, lastozko balen edo zakuen sedimentu hesiak jarriko dira, zurezko hesien edo metalezko oinen bidez zoruari finkatuta.

Gainera, txostenean gogorarazten da Ebro ibaitik edo balizko putzu edo iturburuetatik ura biltzea planteatzen bada, alde aurretik nahitaezko emakida edo aldi baterako baimena eskatu beharko dela.

– Arabako Foru Aldundiko Museo eta Arkeologia Zerbitzuak, Museo eta Arkeologia Zerbitzuak emandako txostenaren bidez, adierazten du obrek eragindako eremuak ez lukeela, a priori, eragin arkeologikorik izango. Hala ere, trazadura Las Parecillas inguruan dagoen txabolatxo baten ondortik doala adierazten du. Gaineratzen duenez, prebentzio neurri gisa, elementu hori balizatu egin beharko da, eta lanek haren osotasunari eragiten ez diotela ziurtatu. Gainera, txostenean adierazten duenez, proiektuaren edozein aldaketak eragin arkeologikoak izan baditzake edo obretan zehar edozein aurkikuntza gertatzen bada, berehala jakinarazi behar zaio Arabako Foru Aldundiko Kultura eta Kirol Sailari, Euskal Kultura Ondareari buruzko 6/2019 Legearen 74. artikuluan ezarritakoren arabera.

– Foru Aldundiko Nekazaritza Zuzendaritzak jakinarazi du proiektatutako elementu batzuk EAEko Nekazaritza eta Basozaintzako Lurralde Plan Sektorialak katalogatutako lurzoruan daudela, kategoria honetan: “Balio estrategiko handia”, “Baso-mendi urria” eta, puntualki, “trantsizioko landa paisaia” azpikategoria.

Adierazi du HUPE hobi septikoaren egungo kokalekuan gauzatuko dela, eta, beraz, ez zaiela lurzoru berriei eragingo; gainera, proiektatutako txabolaren neurriak ez direla esanguratsuak adierazi du.

Saneamendu sarearen trazadura industrialdearekin lotzeko, Lasernako landa bideak eta kaleak erabiliko dira beti, industrialdeko sarearekin konektatu arte. Beraz, laborantza azalerak ez dira kaltetuko.

Beste alde batetik, adierazten du, Arabako Lurralde Historikoko Landa Bideen Erregistroan inskribatutako bideei dagokienez, erregistratutako bi bidek izango dutela eragina:

- 031-71: La Ribera del Marques bidea. HUPE-Lasernako herrigunea tartea.
- 031-69: Assa bidea. Lasernako herrigunea-Casablanca industrialdea tartea.

Txostenak ondorioztatzen duenez, proiektuak jarduketek landa bide horietan duten eragina aztertu beharko du. Horrekin lotuta, Arabako Lurralde Historikoko landa bideak erabili, artatu eta zaintzeko 6/1995 Foru Araua aplikatuko da. Horregatik, bertan eragina duen edozein jarduketa gauzatu aurretik, dagokion txosten teknikoa eskatu beharko zaio Arabako Foru Aldundiko Nekazaritza Garapenerako Zerbitzuari. Lanak amaitzean bide horiek lehengoratu egin behar dira.

– Eusko Jaurlaritzako Kultura Ondarearen Zuzendaritzak jakinarazi du proiektua Arabako Errioxako Ardoaren eta Mahastiaren Paisaia Kulturalaren eremuaren barruan dagoela, eta ekainaren 3ko 89/2014 Dekretuaren bidez izendatu zela, monumentu multzo izendapenez sailkatutako kultura ondasun gisa (2014-05-13ko EHAA, 11. zk.).

Adierazten du aurkeztutako ingurumen dokumentuak, kultura ondareari buruzko II.7 atalean (27. or.), azterlanaren eremuan kokatzen den kultura ondarearen elementu bakarra jasotzen duela, -txabolatxo Las Parecillas-en (LAG-429), eta elementu hori II. eranskinean jasota dagoela ekainaren 3ko 89/2014 Dekretuan, haren babes araubidearekin batera.

IV.4.10. atalean (Kultura Ondarearen gaineko eraginak) aipatzen denez, prebentzio neurriak hartu beharko dira elementu horren gainean inolako eraginik egon ez dadin, hondakin uren trazadura eramango duen bidearen ondoan egoteak eragina izan baitezake zangak irekitzean.

Amaitzeko, adierazi du, Dekretuaren babes araubidearen arabera, txabolatxoen kasuan, 2 metroko eremua ezartzen dela horien kanpoko hormen inguruan. Mugaketa hori justifikatuta dago, paisaiatik isolatutako elementuak direlako, kanpoko egiturarik gabeak. Gainera, txabolatxoak mugatzeko eremuetan egingo den esku-hartze edo jarduera orori buruzko txostena egin beharko du Arabako Foru Aldundiko Kultura Ondarearen Zerbitzuak, eta, txabolatxoak ikusitakoan, hartu beharreko neurri zuzentzaileak ezarriko ditu, behar izanez gero.

– Natura Ondarearen Zerbitzuak jakinarazi duenez, Ingurumen Dokumentua aztertu ondoren, egiaztatu da egin beharreko jarduketek eragina dutela ES2110008 Ebro ibaia KBEko Babes Eremu Periferikoan (BEP), eta eremu horrek Kontserbazio Neurriak eta Gidalerroak dituela. Halaber, eragina du Interes Berezikoko Eremuetan, Espezie Mehatxatuen Euskal Katalogoan sartuta dauden zenbait fauna espezierentzat. Eremu horiek beren kudeaketa planak dituzte Arabako Lurralde Historikoan. Aipatutako KBEan eta Interes Berezikoko Eremuetan proiektua gauzatzeak izan ditzakeen ondorioak aztertu eta ebaluatu ondoren, txostenak uste du horiek ez dutela eragin nabarmenik izango habitat eta espezieetan, eta, printzipioz, hobetu egingo dutela hondakin uren tratamendua HUAren bidez. Beraz, aldeko txostena egin da, aurreikusitako jarduketak bat datozelako kontserbazio helburuekin eta KBEaren kudeaketarako gidalero eta neurriekin, proiektatutako jarduketek behar dituzten beste baimen batzuei kalterik egin gabe.

– Ondare Historiko-Arkitetnikoaren Zerbitzuak jakinarazi duenez, proposatutako proiektuko obrak Arabako Errioxako ardoaren eta mahastiaren kultura paisaia izeneko monumentu multzoaren barruan daude (89/2014 Dekretua, 2014/06/13ko EHAA), eta, zehazki, trazadura 200 metroko tarte batean doa, "LAG-terrazamendua-79" terrazamenduaren ondoan, bertan eraginik

izan gabe, Las Parecillas inguruko txabolatxoren ondoan; azken horrek obra fasean makineriaren mugimenduen eta behin-behineko sarbideen eragin jasan dezake. Ondare Historiko-Arkitetoni-koaren Zerbitzuaren ikuspuntutik, egokitzen jotzen da txabolatxo hori seinaleztatzea obren fasean, haren osotasunak eraginik ez duela ziurtatzeko, ingurumen dokumentuan proposatzen den bezala.

– IHOBE - Ingurumen Kudeaketako Sozietate Publikoak adierazi duenez, kokapena aztertuta organo honetan ez da agertzen kokapen horietan lurzorua kutsa dezakeen jarduerarik egin denik eta, beraz, ez da sartzan lurzorua kutsa dezaketan jarduera edo instalazioak jasan dituzten edo jasaten dituzten lurzoruen inbentarioan. Gogorarazten du ezen, baldin eta jakiten bada eremu batek izan duela lurzorua kutsatzea saihestu eta kutsatutakoa garbitzeko ekainaren 25eko 4/2015 Legearen I. eranskina aldatzeko azken xedapenetako lehenengoan aipatutako jarduera kutsagarriren bat (209/2019 Dekretua, abenduaren 26koa, lurzorua ez kutsatzeko eta kutsatutakoa garbitzeko), inbentarioa egin beharko litzaiokeela eremu horri, eta haren parte biltz izango litzukeen ondorio berberak izango litzukeela. Azkenik, kutsadura zantzuak antzematen badira, lurzorua kutsatzea saihestu eta kutsatutakoa garbitzeko 4/2015 Legearen 22. artikulua betez, gertaera horren berri eman beharko zaio Ingurumeneko Sailburuordetzari.

– Ebroko Konfederazio Hidrografikoak txostena gehitu du, URA – Uraren Euskal Agentziatik txosten eskaera jaso ondoren. Txosten honen arabera, garbiguneei segurtasun kubeta iragazgaitz baten barruan egon behar dute, eta isurgarria izan daitekeen bolumena biltzeko gaitasuna izan behar dute. Obraren material xurgatzailea eduki beharko da, ustekabeko jario edo ihesetan aplikatu ahal izateko. Gainera, euriteen jariatze urak arrastaka eramateagatik kalterik ez izateko, honako praktika hauek proposatzen ditu:

– Lan eremuetan jariatze urak murrizteko, perimetroa drainatzea (obra eremuen isolamendua).

– Lan eremuetako jariatze urak (obrako urak) hartzea.

– Jalkinak kontrolatzeko eta obrako urak isurtzeko sistema, kanpoko drainatze sarearekiko edo ibilgurekiko konexio puntuen aurretik:

- Seinaleztatutako dekantazio/sedimentazioko aldi baterako putzua.

- Sedimentuak atxikitzeo hesia.

– Obrak ibilguaren inguruan egin behar badira, lastozko balen edo zakuen sedimentu hesiak jarriko dira, zurezko hesien edo metalezko oinen bidez zoruari finkatuta.

– Jabari publiko hidraulikoari edo ibilguaren polizia eremuari eragiten dion edo eragin behar dion edozein jarduketek Uraren Euskal Agentziaren (URA) nahitaezko baimena izan beharko du, sektoreko legerian ezarritakoaren arabera.

Txostenak ondorioztatzen duenez, Lasernako hobi septikoa Guardiako udalerrian Casa-blancako (Araba) HUAra lotzeko proiektuak izan ditzakeen ondorioak bateragarritzat jotzen dira sistema hibridoarekiko, aurkeztutako ingurumen dokumentuan jasotako neurrien beteapena salbu. Era berean, txostenaren arabera, jarduketa eremuko ingurune hibridoa babesteko beharrezkoak diren jarduera guztiak egingo dira, bai azalekoak, bai lurpekoak, kutsadura edo degradazioa saihesteko eta lotutako landaredia eta fauna zaintzeko, zonako dinamika hidrologikoa nabarmen aldatuko ez dela bermatuz, betiere azaleko eta lurpeko uren kalitatea ziurtatuta.

3. Eragina jasan dezaketan ingurumen balio handiagoko elementuak. Ingurumen eragin nagusiak

Lasernan (Araba) hondakin uren ponpaketa estazioa eraikitzeo proiektutik eratorritako ingurumen inpaktu nagusiak bereizi egin beharko liratekeela uste da, horiek ezartzeko faseak kontuan hartuta, hau da, eraikuntza fasea eta ustiapen fasea bereizita. Ingurumen inpaktu horiek behar bezala deskribatu dira Ingurumen Dokumentuaren IV. kapituluan, oro har bateragarritzat jotzen baitira. Jarraian, aztertutako proiektuaren ondoriozko ingurumen inpaktu nagusiak laburbiltzen dira.

UKITUTAKO INGURUKO EREMUA / ELEMENTUA	DESKRIBAPEN LABURRA
Geologia, geomorfologia	Proiektuaren jarduketara eremua 390-400 metroko altitudetan dago, Ebroko Depresioaren mugaren artean; hareharri eta kareharri hareatsuekin txandakatuta dauden buztin eta lohi erre horixkak daude Miozenoko geruza finetan, bai eta ibaiaren ezkerreko Kuarternarioko materialak ere, legarrez, hareatzez, limoiez, kareharriz eta kareharri organikoz osatutako terrazaren gainean. Materialen tipologiak kontuan hartuta, eta adina aparte utzita, eremua materialen gainean dago. Material horiek azaleko eta detritikoko biltegiak osatzen dituzte, txandaka. Aldagai horiei lotutako inpaktu nagusiak hondeaketei, lur mugimenduei, instalazio osagarrien eremuei eta materialak biltzeko eremuei dagozkien obrek lotuta daude. Eragina bateragarria-moderatua da, kokalekuaren hautaketa eta egin beharreko lur mugimenduen garrantzi txikia direla eta. Neurri egokiak hartuta, eragina asko murrizten da.
Edafologia	Erreka-estazioaren goiko aldea hartzen du. Harri amari eragin dioten meteorizazio prozesu fisiko-kimiko eta biologikoen multzotik sortutako geruza horizontalen segida batez osatuta dago. Ameriketako Estatu Batuetako Nekazaritza Departamentuko (Soil Taxonomy) lurzoruen munduko sailkapenaren arabera, jarduketara eremuko lurzorua isoles-entisoles motako taldean sailkatzen dira. Lotutako inpaktu nagusiak honako hauek dira: lurzorua suntsitzea eta HUPe eta eroanbideen eraikuntza eremuan lurra trinkotzea; gainera, lurzorua kutsatzeko arriskua dago, edo kalitate edafikoa aldatzeko obretan zehar egindako isurketengatik; halaber, lurzoruaren aldaketaren aurrean higadura eta sedimentazio prozesuak areagotzearen ondoriozko arriskuak ere badaude. Inpaktu horiek bateragarri-moderatu gisa bereizten dira. Jardunbide egokiak eta prebentzio neurri orokorrak hartu beharko dira obrek dirauten bitartean eragin horiek ahalik eta gehien murrizteko, hala nola afekzio eremua eta landare lurzoruaren erabilera behar bezala mugatuz. Lurzoruaren horizonteak behar bezala bereiziko dira, ordena berean birjartzeko.
Lurzoruaren okupazioa	Proiektuaren eremuan sartutako lursailak "balio estrategiko handia", "Baso-mendi urria" kategorietan eta, puntualki, "trantsizioko landa paisaia" azpikategorian sailkatutako lurzoruei dagozkie, EAeko Nekazaritza eta Basozaintzako Lurralde Plan Sektorialaren arabera. Lurzoru horien gaineko eragina oso txikia da, eta obra fasean zehar gertatutako litzateke, HUPearen azpiegiturak eraikitzearen, zangak induskatzearen, obra instalazio osagarrien eta materialak pilatzearen ondorioz; estazioak berak ez luke eraginik sortuko, egungo hobi septikoaren kokapen bera baitu.
Hidrogeologia eta hidrologia	Ikuspegi hidrografikotik, eta eraikuntza fasean, inpaktu edo afekzio nagusiak obrek berek eragindakoak dira. Halaber, azaleko uren kalitatea aldatzeko aukera ere bada, isurketengatik, bai eta lurpeko uren kalitatea aldatzeko eta/edo inguruko iragazketa eta drainatze sare naturala edo isurketa sare aldatzeko ere. Ustiapen fasean, hondakin urak Casablancako industrialdeko HUAra eramateak Ebro ibaira isurtzen diren uren kalitatea hobetuko du. Inpaktua positibotzat jotzen da, eta oso adierazgarria da Laserna udalerriko eta Contino upeltegiko hondakin uren egungo isurketa baldintzak hobetzea, bai eta Ebro ibaiaren ezkerrean isurketa puntu bat kentzea ere.
Ebro ibaia KBE BEP	Proiektuan jasotako jarduketara batzuk ES2110008 Ebro ibaia KBEaren Babes Eremu Periferikoan (BEP) daude. Aurreikusitako obrak txikiak direnez eta eragin txikia dutenez, Arabako Foru Aldundiko Natura Ondarearen Zerbitzuak aldeko txostena egin du. Ustiategiari dagokionez, eragin positibo oso adierazgarritzat jotzen da Laserna udalerriko eta Contino upeltegiko hondakin uren egungo isurketa baldintzak hobetzea, eta Ebro ibaiaren ezkerrean isurketa puntu bat kentzea; izan ere, 4. helburu operatiboaren 1. JAR.10 neurriak jasotakoa betetzen du (uren kalitatea eta ibaiaren egoera ekologikoa hobetzea bultzatzea, KBEaren eremuan), ES2110008 Ebro ibaia KBEaren kudeaketa gidalerroak eta neurriak hispide, ibai korridore ekologikoari dagokionez. Nolanahi ere, kontu handiz ibili beharko da eta ingurunea lehengoratzeko neurriak hartu beharko dira, lurzoruen azaleko horizonteak behar bezala lehengoratzuz.
Landaretza	Proiektuak eragindako landareki naturalak hartzen duen azalera oso txikia da. Eraikuntza fasean, bi zuhaitz aleri baino ez die eragingo HUPearen eraikuntza eremuan. Bultzatutako eroanbideak eta hari lotutako elementuek ez diote landareki naturalari eragingo, landa bideen edo bideen gainean baitaude, oso-osorik. Gainera, sustatzaileak aurkeztutako ingurumen dokumentuan, paisaia leheneratzeko zenbait jarduketa jasotzen dira, HUPearen ingurunean egin beharrekoak, inpaktu hori neurritzeko edo moderatua izan dadin. Horretarako, neurri babesle eta prebentiboak behar dira, eragin eremua behar bezala zedarritzearekin lotuta (igarobideak, pilaketak, etab.), bai eta balizamendu espezifikokoak ere, jarduketatik kanpoko aleei ez eragiteko. Halaber, obretan jardunbide egokiak eta prebentzio neurri orokorrak aplikatu beharko dira.
Flora	Ez da Espezie Mehatxatuen Euskal Katalogoan (EMEK) sartutako espezierik aipatu proiektuaren esparruan. Ondorioz, ez da horren gaineko eraginik espero.
Fauna	Proiektuan sartutako lanek Espezie Mehatxatuen Euskal Katalogoan sartutako zenbait fauna espezierentzako Interes Bereiziko Eremuei eragiten diete, eta Arabako Lurralde Historikoan dagozkien kudeaketa planak dituzte. Aztertutako Alde horretatik, Arabako Foru Aldundiko Natura Ondarearen Zerbitzuak aldeko txostena egin du, uste baitu proiektuan sartutako jarduerak nekez eragin diezaietela erasanik arriskuan dauden espezieei. Gainera, estazioa egin ondoren isuritako uraren kalitatea hobetzeak uraren baldintzak hobetuko ditu. Halaber, habitataren baldintzak hobetuko ditu uretako espazioei lotutako espezie askorentzat.
Pasabide ekologikoak	Ez da pasabiderik edo lotura eremurik zehaztu proiektuak eragindako eremuan.

UKITUTAKO INGURUKO EREMUA / ELEMENTUA	DESKRIBAPEN LABURRA
Paisaia	Proiektuaren eremuan ez da katalogatutako paisaiarik aurkitu. Eraikuntza faseari soilik lotutako aldaketak gertatuko dira, eta aldi baterakoak izango dira (metaketa eremua, instalazio osagarrien eremua, etab.). Ustiapen fasean, HUPÉ paisaian integratuta geratuko da, sustatzaileak aurkeztutako Ingurumen Dokumentuak HUPÉaren beraren paisaia leheneratzea jasotzen baitu. Izan ere, inguruko zuhaitz eta zuhaixka espezieak landatzea aurreikusten da. Inpaktua bateragarria izango dela uste da, baldin eta txosten honetan eta sustatzaileak aurkeztutako ingurumen dokumentuan adierazitako ingurumen neurriak eta baldintzak hartzen badira.
Kultura Ondarea	Arabako Foru Aldundiko Museo eta Arkeologia Zerbitzuak eta Eusko Jaurlaritzako Kultura Ondarearen Zuzendaritzak, Ingurumenaren gaineko Eraginaren Ebaluazio Sinplifikatuaren prozedura honen kontsulta fasean, eta aurkeztutako Ingurumen Dokumentuan, proiektuaren esparruan Las Parecilla inguruko txabola dagoela adierazi dute. Eusko Jaurlaritzako Kultura Ondarearen Zuzendaritzak ere jakinarazi du proposatutako proiektuko obrak Arabako Errioxako ardoaren eta mahastiaren kultura paisaia izeneko monumentu multzoaren barruan daudela (89/2014 Dekretua, 2014/06/13ko EHAA), eta, zehazki, trazadura 200 bat metroko tartean dagoela, LAG-terrazamendua-79 terrazamenduen ondoan, baina ez diola eragiten. Bestalde, bultzada egiten duen eroanbidearen zati batek, HUPÉtik Lasernako biztanle guneraino doanak, Ebroko Bidea 99 Ibilbide Luzeari (GR-99) eragingo dio (Arabako Lurralde Historikoko Ibilbide Berdeei buruzko 1/2012 Foru Araua aplikatuko da, eta eragindako ibilbidea birjartzeko neurri egokiak hartuko dira). Ez da aurreikusitako txabola eragiten gaiten eraginik egongo denik. Hala ere, haren inguruan ahalik eta obra jardunbide orokor egokiak bete beharko dira, eraginak ahalik eta gehien murrizteko, eta, zehazki, seinaleztapen eta funtzionaltasun egokia bermatu beharko dira, segurtasuna betez. GR-99ren eraginari dagokionez, bidezidor balizatia hasierako egoerara itzultzeko beharrezko jarduketak egin beharko dira obren ondoren, 1/2012 Foru Arauaren arabera.
Giza habitata	Ez da eragin negatibo esanguratsurik aurreikusten atal honetan, proiektutako obrak populazio gunetik behar bezain urrun daudelako. Gainera, zarakak eta/edo hautsak eragindako eragozpenak garrantzi txikiak dira. Obren ondorioz trafikoa askorik handitzea ere ez da espero. Bestalde, eragin positiboa egon daiteke; izan ere, obrek, denbora tarte mugatu baterako bada ere, obrako langileek eskatutako zerbitzuen erabilera areagotu dezakete. Proiektua interes publikokoa eta osasungarria dela kontuan hartuta, biztanleriaren gaineko eragina bateragarritzat jotzen da.
Klima aldaketa	Eraikuntza fasean, zona horretan berotegi efektuko gasen isurketa areagotu egingo da, lanak egingo dituzten makinaren joan-etorria handitu egingo baita. Tokiko emisioen igoera hori ez da oso handia, eta ez da esanguratsua maila globalean. Bestalde, HUPÉaren paisaia integrazioan ezarri beharreko landareztatzeak CO2-ren hustubide efektua sortuko du.
Arriskuak	— Sute arriskua azalera txiki baten gainean egongo da, proiektuaren azalera osoarekin alderatuta, eta, beraz, afekzioa txikia izango da. Ez da beharrezkoa neurri espezifikoak hartzea obrako jardunbide egokietatik harago (obran erabilitako makineriaren kontrola eta babes ekipamenduen eskuragarritasuna), ingurumen faktore horrekin eta beste batzuekin lotuta. — Ez da aurreikusten proiektuak uholde arriskua areagotuko duenik jarduketa eremuan. Proiektutako instalazioak ez daude kokatuta lehentasunezko fluxu eremuaren kartografiaren gainean, ez URA-Uraren Euskal Agentziaren uholde arriskugunean, ez eta uholde arrisku nabarmena izan dezaketen eremuetan ere.

Lasernan (Araba) hondakin uren ponpaketa estazioa eraikitzeko proiektuan jasotako jarduketak egiteak ez du ingurumen inpaktu handirik eragingo, eta horiek bateragarritzat edo bateragarri-moderatutzat hartuko dira. Gainera, ustiapen fasean uraren kalitatean eragin onuragarria izango dute, betiere sustatzaileak ebaluazio honen esparruan aurkeztutako dokumentazioan deskribatutako jarduketekin bat badatoz eta txosten honetan jasotako zehaztapenak guztiz betetzen badira.

4. Neurri babesle eta zuzentzaileak

Ingurumen Dokumentuaren V. kapituluan, proiektuaren ingurumen integratzearako neurri batzuk aipatzen dira, prebentziozkoak, zuzentzaileak eta konpentsaziozkoak. Neurri horiek, oro har, zuzentzat jotzen dira, eta, beraz, egokia da neurri horiek deskribatutako baldintzetan aplikatzea. Hala ere, jarraian, deskribatutako eremu afektagarrian ingurumen ondorio negatiboak saihesteko eta/edo minimizatzeke hartu behar diren neurri osagarriak jaso dira.

A) Obrak hasi aurretik, sustatzaileak abisua emango dio Ingurumen Jasangarritasuneko Zerbitzuari, obren ingurumen jarraipen egokia egiteko eta ingurumen inpaktuaren txosten honetan ezarritakoa betetzen dela egiaztatzeke.

B) Proiektua gauzatzearen ondorioz erasango diren azalerak zehazki mugatu eta seinalez-tatu dira, baliza eta seinale egokien bidez, ingurumen balio handieneko eremuetan. Seinalez-tapen lan horretan, Ingurumenaren Kalitatearen Zerbitzuko Obraren Zuzendaritza, Kontrataren obraburua eta Ingurumen Jasangarritasunaren Zerbitzuko teknikari bat egon beharko dira.

C) Landaketak eta ereintzak Ingurumen Dokumentuan aurreikusitako eremuan egingo dira: HUPEaren inguruan. Erabili beharreko espezieak, landareen ezaugarriak eta landatzeko metodoak txosten honen E atalean adierazten dira.

D) Landaredi naturalez estalitako lursailak landarez leheneratzeko programa oso bat gauzatu behar da, oro har, bai eraikuntza lanen eragina jasango duten eta ingurumen aldetik lehengoratzeko aurreikusi diren eremuetan, bai planteatzen diren fabrika obren ingurunean paisaia integratzeko eremuetan. Programa horrek honako eragiketa hauek jaso beharko ditu obrak uki dezakeen eremu osoan:

– Lurra destrinkotzea, modelatzea eta profilatzea lurzoru naturalarekiko igarotze eta ukipen guneetan taxuzko doiketa eta egokitze fisiografikoa lortzeko.

– Gutxienez 0,4 m-ko landare lurra duen geruza bat ematea eta, ondoren, xehetasunez profilatzea, horretarako kendu ondoren.

– Lurra lantzeko eta biguntzeko eta, ondoren, fintzeko lanak egitea, gainazalak ereiteko behar bezala prestatzeko.

– Belar estalki bat ezartzea ereintza bidez. Landare estalki naturala duten eremuetan egingo da. Horretarako, gramineo eta lekadun espezie kespitosoen nahasketa bat erabiliko da, eraginpeko eremuko baldintza klimatiko eta edafikoetara egokitua, eta Ingurumen Zuzendaritzak onartu beharko du.

E) Jarduketa eremuetan egingo diren landaketen/ereiteen ezaugarriak honakoak dira:

– Zuhaitz espezieak:

10-30 cm-ko altuera eta 5 mm-ko diametroa duten aleak (1-2 izerdi). Landareen arteko distantzia 2 m. Zuloaren gutxienerako neurria 0,4x0,4x0,4 m:

– *Quercus ilex*.

– *Fraxinus angustifolia*.

– Zuhaixka espezieak:

10 -30 cm-ko altuerako aleak. 2 x 2 m-ko landaketa esparruak. Zuloaren gutxienerako dimentsioa: 0,4x0,4x0,4m.

– *Quercus coccifera*.

– *Juniperus oxycedrus*.

– *Rhamnus alaternus*.

– *Thymus vulgaris*.

Landareak sartu ondoren, zuloa edo zanga beteko da kalitatezko landare luraren hondoko lehen ekarpenaren bidez, behar bezala trinkotutako 20 cm-ko geruzatan. Landareak 60 cm-ko altuerako hodi babesle baten bidez babestuko dira, dagokion akazia zurkaitzarekin, eta landare guztien oinarrian landare zuntzez egindako babesgarri bat jarriko da, esterila eta biodegradagarria (ehuneko 94 koko zuntza eta ehuneko 6a latexa), 800 gr gramajoduna eta 30-50 cm arteko diametroa.

Landatzeko/ziriztatzeko aldia: abendua-otsaila.

Gramineoak ereitearekin batera, lekadun espezieak ere jar daitezke. Erein nahi izanez gero, lurra aurrez prestatu beharko da.

Ereite aldia: abendua-otsaila.

F) Egurrezko landare estaldura mantentzeko lanak egingo direla bermatu beharko da hasierako ezarpenaldian, lurra behin betiko errotzen eta ezartzen dela ziurtatzeko. Horren barruan, honako lan hauek aurreikusi behar dira: ur gutxi dagoen garaian ureztatzea, landare hilak birjartzea, zurkaitzak eta oinarrizko babesak lehengoratzeta, sasiak kentzea, etab.

G) Obrak egiten diren bitartean, ontzi estankoak, biltegi iragazgaiztuak edo lubrifikatzaileak edo erregaiak biltegitratzeko beste sistema alternatibo batzuk jarri beharko dira, eta debekatuta egongo da jada erabilitakoak isurtzea; horiek kudeatzaile baimenduari emango zaizkio. Debeku hori beste hauetara ere hedatzen da: hormigoi hondakinak, eraikinetako materialak, lurrak eta abar; horiek guztiak baimendutako hondakindegira edo zabortegietara eramane beharko dira. Ekainaren 26ko 112/2012 Dekretuan adierazi bezala kudeatu beharko dira eraikuntzako eta eraispene lanetako hondakinak. Dekretu horrek eraikuntzako eta eraispeneetako hondakinen ekoizpena eta kudeaketa arautzen ditu.

H) Sare hidrografikotik hurbil dauden eremuetan ezingo dira jarri zerbitzuguneak, makineria parkeak eta produktu kutsatzaileen biltegiak.

I) Foru Aldundiko Nekazaritza Zuzendaritzak jakinarazten duenez, afekzio sektorialaren ebaluazio protokoloan adierazten da txosten teknikoa eskatu beharko zaiola Aldundiko Nekazaritza Garapenerako Zerbitzuari, Arabako Lurralde Historikoko landa bideak erabili, artatu eta zaintzeko 6/1995 Foru Araua aplikatzeko, landa bideei eragiten dien edozein jarduketa gauzatu aurretik.

J) Ebroko Bidea Ibilbide Luzearen (GR) gaineko inpaktu guztiak zuzenduko dira, Arabako Lurralde Historikoko Ibilbide Berdeei buruzko 1/2012 Foru Arauan ezarritakoaren arabera. Horretarako, obrek eragin diezaieketen Ebroko Bidea 99 Ibilbide Luzeko seinaleztapenari dagozkion altzari guztiak birjarriko dira; batez ere, HUPE berria eraikitzeko eremuan dagoen seinalea. Obren eragina jasoz gero, eraikuntza lanak amaitu ondoren dauden baldintza berberetan jarri beharko da seinale hori.

Era berean, lanak egiten diren bitartean, beste aukera bat jarri beharko da GR-99tik igarotzeko. Aukera hori behar bezala seinaleztatuta egon beharko da.



Ebro Ibaiaren bidea GR-99ko seinalea

K) Zangak hondeatsetik eta/edo HUPE eraikitsetik sortutako gehiegizko lurrak baimendutako zabortegian utziko dira.

L) Obrak amaitutakoan, garbiketa kanpaina zorrotza egingo da. Proiektuaren eraginpean dagoen arean ez da inolako obra hondakinik geratuko, eta instalazioak erabat deseginda geratuko dira.

5. Zaintza eta jarraipena

Ingurumen jarraipeneko planari buruzko ingurumen dokumentuaren VI. kapituluari planteatzen den bezala, komenigarritzat jotzen da ingurumen jarraipeneko lan bat egitea, Uren Zerbitzuak eta Foru Aldundiko Ingurumen Jasangarritasuneko Zerbitzuak koordinatuta, eraikuntza fasean egin beharrekoa, aplikatutako neurri zuzentzaileen eta ingurumena leheneratzeko neurrien eraginkortasuna ezagutzeko eta ebaluatzeko, eta egon daitezkeen akatsak zuzentzeko.

Horren ondorioz, Ekonomiaren Garapenaren, Berrikuntzaren eta Demografia Erronkaren Saileko foru diputatuak eta lehen diputatuorde nagusiak proposatuta, Ingurumen eta Hirigintza Saileko titularraren eginkizunetan (titularra ez dagoelako), diputatu nagusiaren uztailaren 5eko 325/2019 Foru Dekretuan ezarritakoarekin bat etorriz, eta Arabako Foru Aldundiaren antolaketa, funtzionamendu eta araubide juridikoari buruzko abenduaren 18ko 52/92 Foru Arauaren 40. artikulua emandako eskumenez baliatuz, honako hau

XEDATZEN DUT

Primero. Arabako Lasernan hondakin uren ponpaketa estazioa eraikitzeke proiektuaren ingurumen eraginaren txostena egitea.

Bigarrena. Ingurumen ebaluazioaren abenduaren 9ko 21/2013 Legea betetzeko, ingurumen eraginaren txosten estrategikoa ingurumen irizpen erabakigarria izango da neurri eta baldintzei dagokienez.

Hirugarrena. Ingurumen eraginaren txosten hau ALHAOn argitara dadila agintzea.

Vitoria-Gasteiz, 2021eko urriaren 29a

Ingurumen eta Hirigintzako jarduneko diputatua

M^a PILAR GARCÍA DE SALAZAR OLANO

Ingurumen eta Hirigintzako zuzendaria

NATIVIDAD LÓPEZ DE MUNAIN ALZOLA